

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria

18. alea
2015eko abendua

Caroline Phillips

Garapen Kontseiluko lehendakaria



#BaiPraktikaEgokia



Rober Gutiérrez
[zuzendaria]
@robergutierrez

20 jardunbide enpresetan euskaraz aritzeko #BaiPraktikaEgokia

Euskarazko zerbitzua eskaintzeko eta euskaraz lan egiteko urratsak egiten ari dira Bai Euskarari Ziurtagiria duten Euskal Herri osoko ehunka enpresa, saltoki eta era guztietako entitate. Horien guztien ekarpena aitortu behar dugu, gero eta enpresa gehiago ari baita euskaraz lan egiten, euskaraz kontsumitzeko aukerak areagotzen eta euskaraz bizitzea errazten.

Horien eredia aintzat harturik, abentura honetan murgildu nahi duten enpresei bidea erakutsi eta erraztu nahi diegu. Seguru asko enpresa batzuk ez baitute jakingo nondik hasi edo zer egin euskaraz lan egiteko. Bada, ez kezkatu! Bai Euskarari enpresak euskaraz aritzeko hainbat jardunbide ari baita proposatzen eta horiek baieuskarari.eus webgunean jaso dira, euskaraz, gazteleraz eta frantsesez, interesa duen orok kontsultatzeko eta erabiltzeko.

Zein da jardunbide egokia eta eredugarria Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-tearen arabera? Zer egin beharko luke egoki jardun nahi duen entitateak? Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko dauden irizpideei jarraiki, lau eremutan jaso dugu euskararen erabilerari dagokionez egoki aritu nahi duten enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek egin beharreko bidea.

Jarraibide horiek hainbat adibidez hornituta ezarri ditugu baieuskarari.eus webgunean, eta horien laburpen-gisa 20 jarraibiderik aipagarrienak nabarmendu ditugu, euskarazko zerbitzua eskaini eta euskaraz lan egiteko bidea samurtzeko enpresei. Horiek praktika egokiak dira gure ustez, jardunbide eredugarriak. Esate baterako: "Enpresek bermatzea langile guztiek lanpostua garatzeko hizkuntza gaitasuna izango dutela; ahoz zein idatziz", "lanerako baliabideek (softwareak, dokumentazioak...) euskaraz lan egiteko aukera bermatzea", "lehenengo hitzetik euskaraz, bezeroei euskaraz egiteko aukera errazteko" edota "kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zuzendutako elementuak euskaraz egotea: gidak, katalogoak, menuak, aurrekontuak, fakturak eta abar".

Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-tearen helburua eta euskaraz aritu nahi duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei erreferentzia bat eskaini nahi diegu jarraibide hauekin. Zabaltzen lagunduko diguzue? Atera diezaiogun ahalik eta etekinik handiena, eta eragin dezagun gure inguruko espazio guztietan euskaraz lan egin eta bizi ahal izateko.

Berriak 03

Elkarriketa 04

Caroline Phillips, Garapen
Kontseiluko lehendakaria

Kolaborazioa 06

Fermin Lazkano

Enpresarean 08

Enpresarean Foroa

Webgune berritua

Elkarriketa: Alex Gibelalde

Praktika egokia 12

Euskararen Eguna 14

Mintzo-Txiodromoa

Araban Bai Euskarari

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkartea www.baieuskarari.eus · Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148
1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041 · Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026
Pedro Asua, 27 behe - 01008 Gasteiz t. 945215196 · Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez · Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa.
Diseinua eta maketazioa: dalvez · Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkartea, Fermin Lazkano eta Arteman Komunikazioa.
Inprimatzailea: Leitzaran · Banaketa: Ziurtagiriaren Elkartea · Lege gordailua: SS-497-2010

 @baieuskarari

 baieuskarariziurtagiria

www.baieuskarari.eus



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Ezlaigo poligonoa, 21^a Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Bai Euskarari ekimena babesten jarraituko dute Zarautz, Gernika-Lumo eta Gasteizko udalek

Bai Euskarari proiektuak ezinbesteko du ziurtagiridunen parte-hartzea eta atxikimendua, baina beharrezko du udal zein bestelako erakundeen babesa eta aitorpena ere, arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko. Euskal Herriko hiru udalek erakutsi dute berriki Bai Euskarari proiektuarekiko babesa: Zarautz, Gernika-Lumo eta Gasteizko Udalek, hain zuzen ere.



Zarautz

Zarauzko Udalak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek lankidetzak hitzarmena berritu zuten, abenduaren 1ean, Zarauzko udaletxean. Xabier Txurruka alkateak eta Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak sinatu zuten arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko akordioa. 2005ean sinatu zen hitzarmena lehen aldiz.

Hitzarmenean jasotzen denez, Zarauzko Udalak 5.242,33 euro bideratuko ditu udalerrian Ziurtagiria hedatzeko. Ziurtagiriaren Elkartek, bere aldetik, enpresa eta era guztietako entitateen segimendua eta sustapen lana egingo du.

Gaur egun, 36 ziurtagiridun daude Zarautzen: 3k dute Zerbitzua eta Lana Euskaraz ziurtagiria; 22k Zerbitzua Euskaraz ziurtagiria; eta 11k Bidean maila.

Gernika-Lumo

Gernika-Lumon, berriz, zortzigarren urtez banatu genituen Ziurtagiriak, abenduaren 4an. Udalerriko 27 enpresak, komertzio eta era guztietako entitatek jaso zuten Bai Euskarari Ziurtagiria.

Marisa Aldamizetxebarria Euskara zinegotziak eta Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak bi erakundeen arteko hitzarmenaren berri eman zuten. Aurten ere Ziurtagiriaren Elkartearen proiektua babesten jarraituko du Gernika-Lumoko Udalak. Ziurtagiria hedatzeko, 800 euroko diru-laguntza jasoko du Ziurtagiriaren Elkartek; horrez gain, Bai Euskarari Ziurtagiria lortzen duen entitate bakoitzak ordaindu beharrekoaren % 30 hartuko du bere gain Udalak eta Ziurtagiriaren sustapeneko ekimenak babestuko ditu (zozketak, etab.).

Gasteiz

Abenduaren 4ko bilkuran onetsi zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak Bai Euskarari Ziurtagiriarekin duen hitzarmenarekin aurrera jarraitzea. Udala 2013an hasi zen elkartearekin elkarlanean. Denbora tarte honetan, Gasteizko 72 entitatek lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Gasteizko Udalak hitzarmena berritzea erabaki du, 22.050 euroko aurrekontuarekin.

Herri hizkera kontrolatzen duzu?

Sartu eta jarri zure burua proban

Herrizki aplikazioarekin

Garaipena

artez

AKTING...

Robelagak



artez
EUSKAL JARDUKA

hizkuntza
aholkularitza

itzulpen
zerbitzua

bai

erabiltzaia eta
lana euskaraz



www.artez.eus

Caroline Phillips Garapen Kontseiluko lehendakaria

“Egiazko plazera da egiten ari garena, eraikitzen ari baikara gure Iparraldean”

Amerikarra da sortzez Caroline Phillips, Kaliforniakoa, baina duela 23 urte iritsi zen Euskal Herrira, eta euskara ikasi zuen segidan. Phillips Internet Consulting enpresaren arduraduna da, informatikan eta komunikazioan aritua. Garapen Kontseiluko lehendakari izendatu zuten otsailaren 23an, erakunde horretako idazkari eta lehendakariorde izan ondotik.

Amerikar bat, Euskal Herrira etorri eta euskara ikastea ez da ohikoa. Nolatan euskara ikasteko gogo hori? Zergatik?

Gogoan dut, amerikar euskaldun batzuekin afari batean nengoela behar bada espainiarra ikasiko nuela erran niela; bizkarra eman zidaten. Nire senarra ere bertan zen, Michel Ducau, eta galdetu nion zergatik eman zidaten bizkarra. Orduan kontatu zidan Euskal Herriari eta euskarari buruzko guztia. Micheli galdetu nion ea zergatik ez zidan ezer erran... Afari hori izan eta segituan hasi nintzen euskara ikasten Baionako gau eskolan.

Hemen egon arren ez nekien ezer Euskal Herriari eta euskarari buruz, eta hori arazo bat da. Badago jendea hemen bizi dena euskararekin eta euskaldunekin kontakturik izan gabe.

Zer leku du zehazki euskarak zure egunerokoan?

Euskaraz kantatzen dut eta orain ari gara seigarren diskoa prestatzen eta egunero ari naiz euskal hitzak ikasten. Senarrak ere alabarekin euskaraz egiten du beti. Baditut euskaldunak diren adiskideak eta bezeroak, eta hemen Garapen Kontseiluan egunero izaten dugu zerbait euskaraz: hitzarmen bat,



bilkura bat... egunero erabiltzen dut euskara.

Jakin badakigu, komunikazio enpresa baten buru zarela. Nola erabiltzen duzu euskara zure lan esparruan? Zer ikuspegi duzu euskararen erabileraz alor sozio-ekonomikoan?

Zoritarrez, ez dugu aski erabiltzen lanean. Baditut bezero batzuk euskaldunak eta haiekin euskaraz hitz egiten dut eta hori garrantzitsua da. Beharbada, lanean nire euskal nortasuna aurkitze-

ra etorri naiz Garapen Kontseilura, nire lanean ez baitut hainbesteko aukerarik.

Hausnarketaren bat egin duzue enpresan euskararen erabilpenaz?

Dagoeneko ari gara berriz webgunea egiten enpresa aurkezteko eta egingo dugu atal bat euskaraz, hori oso argi dut.

Bestalde, artista bezala, Bidaia taldearen webgunea dugu euskaraz, frantsesez, ingelesez eta espainolez. Eta gainera kontzertuak egiten ditugunean beti euskaraz ari gara.

Joan den otsail hondarrean, Garapen Kontseiluko lehendakari berria izendatua izan zinen. Nola bizi izan duzu izendapen hori eta zein erronka dituzu ondoko urteetarako Garapen Kontseiluan?

Ongi hartu dut izendapena, gainera lehen aldiz emazte bat da lehendakari. Sinbolikoki inportantea da. Hilabete

“Ongi hartu dut izendapena, gainera lehen aldiz emazte bat da lehendakari. Sinbolikoki inportantea da”



“Badugu hemen gauza asko lantzeko, baina ezin ditugu landu, ez baitugu horiek lantzeko eskumenik”

Hego Euskal Herriko eta Ipar Euskal Herriko hizkuntza komuna euskara izanik, ‘balizko’ garrantzia du euskararen sustapenak enpresa arloko lankidetzarako?

Bai, baina zoritxarrez ikusten dut hemen zer pasatzen den. Esaten dugu “egunon, zer moduz?,” baina gero lanerako erdara dugu. Gure buruetan behar dugu aldaketa, sinistu behar dugu posible dela euskaraz aritzea eta gero horri segitu.

Garapen Kontseiluan, adibidez, badugu itzultzaile bat bilkura guztietan, beraz nahi duenak hitz egin dezake euskaraz.

Enpresarean proiektuak euskaraz lan egin nahi duten enpresen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi ditu. Zein aukera ikusten dituzu horrelako proiektu bat Ipar Euskal Herrian sustatzeko?

Oso ekimen ona da. Oso garrantzitsua da euskara erabiltzea leku publikoetan zein pribatuetan. Behar dugu erabili; ez badugu erabiltzen hilko baita. Hemen badaude enpresak euskaraz lan egiteko gogoz. Baina, adibidez, nire sektorean, zaila da euskara menperatzen duen jendea aurkitzea lanerako.

Hegoaldean badago plan estrategiko bat euskara bultzatzeko, ez dakitenek ikasteko, erabiltzeko... hemen, gure Herri Elkargorik gabe, ez dakit zein izango den euskararen etorkizuna. Jadanik frantsesa hizkuntza gutxitua da mundu mailan; % 0,05 dira frantses-hiztunak munduan. Ingelesak boterea hartu du eta horregatik behar dugu Euskal Herrian zentzu bat aurkitu euskara mantentzeko eta garatzeko. Hizkuntza bat ez bada garatzen, hiltzen da. ●

batzuk behar nituen ikasteko, baina orain oso interesgarria da lana. Egune-ro etortzen naiz Garapen Kontseilura eta egiazko plazera da egiten ari garena, eraikitzen ari baikara gure Iparralde. Denbora gehiago pasatu nahiko nuke, baina badut beste lan bat, artista naiz...

Iparralde mailako Herri Elkargo bakarraren aldeko sustapen kanpaina martxan jarri dugu. Ondare naturala sustatu nahi dugu, kulturaren arloa... Herri Elkargo bakarrarekin edo gabe, gizarte zibilak etorkizunari buruzko hausnarketan aktore izan behar du.

Ipar Euskal Herria bidegurutze handi batean da une honetan. Izan ere, ondoko martxoan, hautetsiek Herri Elkargo bakarraren alde edo kontra bozkatu beharko dute. Garapen Kontseiluko lehendakari gisa, zer beharko luke Ipar Euskal Herriak beren hizkuntza politika propioa obratu al izateko?

Herri Elkargorik gabe, beti Departamentuarekin lan egin behar dugu eta zaila da Iparralde mailako kontratuak lortzea. Badugu hemen gauza asko lantzeko, baina ezin ditugu landu, ez baitugu horiek lantzeko eskumenik.

Kulturaren aldetik, adibidez, ez dago musika eskoletan euskal musika emateko modurik. Badaude euskal musika lantzen duten elkarteak, baina ez dute horrenbeste dirurik. Kontserbatorioan ere badute programa bat, baina txikia

da. Etorkizunean euskal musika mantendu nahi badugu, behar ditugu produzitu gure musikari txikiak.

Garraioaren inguruan ere ari gara lanean. Izan ere, oso zaila da gaur egungo antolaketarekin jendeak autobusak erabiltzea. Garraioa hobetu beharra dago.

Gaur egun 10 Herri Elkargo ditugu Ipar Euskal Herrian eta bakoitzak bere interesa ikusten du. Herri Elkargoei oso garesti ateratzen zaie, garraioen inguruko lanketa egitea adibidez, eta ondorioz, ez dute egiten. Garapen Kontseiluan eta Hautetsien Kontseiluan ez dugu egiazko konpetentziarik; ezin ditugu kontratuak egin. Beraz, badugu dena egiteko.

Behin eta berriz galdetu dugu euskara sustengatzeko eta ondorioz, aitzinkontua handitzeko. Estatuak dio, bere aldetik aitzinkontua igoko duela, baina herriek eta hiriek ere, haien aldetik igo behar dutela. Gure hizkuntza sustengatu nahi badugu, guk sustengatu behar dugu.

Mugaz gaindiko proiektuak garatzen ari dira Hegoaldeko eta Iparraldeko elkarte zein enpresak. Ze aukera daude lankidetzarako?

Idea ona da. Jadanik baditugu Hegoaldean bizi diren eta hemen lan egiten duten langileak, eta hemen bizi eta Hegoalderat doazenak egunero. Bada, adibidez, estatu bat Frantzia eta Suitza artean eta horrelako zerbait landu daiteke hemen ere.



Fermin Lazkano

Makina
Erremintaren
Institutua

Enpresen euskalduntzea: metodo objektibo bat

Nola jakin euskara planetik lortutakoa asko ala gutxi den? Nola zenbatetsi lantoki batean euskararen erabileraren sabai teorikoa? Nola neurtu ekintzen eragina? Neurtzerik balego, erabaki eta ekintzak eraginkortasunaren arabera sailkatu ahal izango lirateke, batzuk lehenesteko.

Lantokietan lau eragile daude zuzenki eragiten dutenak hizkuntza ohituretan, eta beste bat zeharka eragiten duena. Grafikoki:



Lau eragile horiek eragile aktiboak dira, baldintzatu egiten dute erabiliko den hizkuntza. Zeharkako eragiletzat "giroa", idatzi dugu.

Subjektu aktiboen artean elkarrekintza batzuk gertatzen dira, konbinazio jakin batzuk. Esate

baterako konbinazio horietako bat, norbera eta tresneriaren artean gertatzen dena da. Horri AB konbinazioa deritzogu. Dauden guztiak hauexek:

AB, AC, AD, ABC, ABD, ABCD

Kanpoko eragileak hartzen dituztenak ezabatu egin ditugu analisi metodologikoaren azalpena laburtzeko.

Konbinazio horietako bakoitzak hainbat "kasu" biltzen ditu. Demagun pertsonak edo euskaldunak (1), edo erdaldunak (0) edo erdi euskaldunak (1/2) direla. Tresneriari dagokionez, edo euskaldunak (1) edo erdaldunak (0) dira. Konbinazioak eta kasuak bilduta, hau da sortzen den taula (ikusi 1. taula, hurrengo orrian).

Orain artekoa biltzeko, hiru eragile aktibo hartu ditugu aintzat, hiru konbinazio agertu zaizkigu eta 33 kasu. Bere horretan, 23 kasutan (%70etan) ezinekoa da euskaraz aritzea, hain zuzen ere elkarrekintzetan erdaldunik (0) dagoen guztietan.

Kasuak baina, haztatu egin behar dira, ez baitute guztiek gertatzeko probabilitate bera. Esate baterako baliteke pertsona batzuek harreman gehiago izatea beste batzuk baino.

Hortxe dago metodologia honen lehen lana,



www.enpresarean.eus

/enpresarean

@enpresarean



Enpresa eta profesional sarea,
euskaraz

- Enpresa munduko albistek
- Elkarlanerako komunitatea
- Azokari buruzko informazioa



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

1. taula

Elkarrekintzen konbinazio / kasuak

Norbera (A): 1, 1/2, 0 **Tresnak (B):** 1, 0 **Norekin (C):** 1, 1/2, 0

A	B	A	C	A	B	C	A	B	C
1	1	1	1	1	1	1	1/2	1	1
1	0	1	0	1	1	0	1/2	1	0
0	1	0	1	1	0	1	1/2	0	1
0	0	0	0	1	0	0	1/2	0	0
1/2	1	1/2	1	0	1	1	1	1	1/2
1/2	0	1/2	0	0	1	0	0	1	1/2
		1	1/2	0	0	1	1	0	1/2
		0	1/2	0	0	0	1/2	1	1/2
		1/2	1/2				1/2	0	1/2

enpresa ezaugarritzea alegia, litezkeen kasuak aintzat har eta laginak eginez harremanen maiztasunak zenbatestea.

Metodologiaren aplikazio sinplifikatu bat ondorengoa izan daiteke. Sinplifikatua diot guztiek elkarrekintza-maiztasun bera dutela suposatuko dugulako.

Laburtzen ari garen adibidean, tresneriarik behar zuten bi pertsonen arteko harreman bakoitzeko (ABC), 15 aldiz gertatzen ziren bi pertsonen arteko harremanak baina tresneriarik gabe tartean (AC) eta 40 aldiz pertsona bat tresneriarekin jardun behar izatea (AB). Aurreko hau eta gorago erakutsi dugun kasuen taula aintzat hartuz, emaitza hau dugu (ikusi 2. taula).

Sinplifikazioekin jarraituz, enpresa ho-

2. taula

• Kasuak guztira:

$$AB > 6 \text{ kasu} \times 40 = 240$$

$$AC > 9 \text{ kasu} \times 15 = 135$$

$$ABC > 18 \text{ kasu} \times 1 = 18$$

$$\text{Guztira: } 393$$

3. taula

• Kasu "euskaldunak" (1, 1) (1, 0,5):

$$AB > 2 \text{ kasu} \times 40 = 80$$

$$AC > 3 \text{ kasu} \times 15 = 45$$

$$ABC > 4 \text{ kasu} \times 1 = 4$$

$$\text{Guztira: } 129 \text{ hau da } \%33$$

rretan euskaldun, ia euskaldun eta erdaldunen kopuruak berdinak badira, 393 kasu horietatik, gehienez zenbat izan daitezkeen euskaldun kalkulatu ahal dugu (ikusi 3. taula).

Esan nahi baita eredua den enpresa honetan, hiru harremanetatik bakarra izan daitekeela, gehienez, euskaraz.

Jakina, eredu murrizta erabili dugu baina ezagunak dira enpresa errealetan aintzat hartu beharrekoak haztapenak egitean: pertsona bakoitzaren harremana; konbinazio eta kasuen probabilitatea; pertsona zehatzen hizkuntza jarrera eta azkenik erakundean dagoen giroa, horrek pertsonen jarrerak euskaldundu egin ahal ditu eta, haztapen negatiboak ezabatu arte.

Ondorioz, euskara hedatzeko planek hasieratik aipatu ditugun lau aldagai aktiboetan eragin behar eta egin ohi dute, dela kasu erdaldunen probabilitateak murriztuz, dela euskaldunak diren jarrera pertsonala babestuz, dela euskaldunak teknikoki alfabetatuz IKTekin, pantailekin, eskuliburuekin eta abarrekintzen duten harremana euskalduntzeko. Baina garrantzitsua dena: ekintza bakoitzaren eragina kuantifikatu egin ahal da.

Pertsonen arteko eta bitarteko teknikoekiko harremanen analisi kuantitatibotik eta euskararen aldeko konbinazioen indartzetik etor daiteke hurrengo jauzia. Tresnak euskalduntzea garrantzitsuagoa da, kuantitatiboki, uste dena baino.



Leitzaran Grafika, S.L.
Martín Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala





Webgunea berritu du Enpresarean proiektuak



Enpresarean proiektuak, enpresa eta profesionalen sareak, webgunea berritu du. Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi da Enpresarean proiektuaren bidez. Egitasmoaren ardatz dira bi urtean behin antolatzen den Enpresarean azoka, Enpresarean Foroa hitzaldi-gosariak eta Enpresarean.eus webgune berritua.

Itxuraz zein edukiz berrituta dator Enpresarean.eus webgunea:

- **Diseinua.** Diseinu modernoagoa eta erabilerrazagoa du orain webguneak, gailu guztietan egoki ikusteko modukoa, *responsive* diseinuarekin.
- **Komunitatea eta bloga.** Erabiltzaileei webgunean parte hartzea erosoagoa izan dakien, sinplifikatu egin da komunitatea. Hala, blog itxura hartu du komunitateak gai bakoitzari dagozkion etiketak dituelarik. Enpresarean.eus-en izena eman duen edozein enpresak edo profesionalak komunitatean bere proiektua aurkezteko aukera du, baita ekonomiaren edo enpresaren inguruko beste edozein gogoeta egiteko modua ere.
- **Ekitaldiak.** Enpresareanek antolatzen dituen ekitaldien berri jasotzen du atal honek: azoka, jardunaldi, Enpresarean Foroa eta Araban Euskara Lanean egitasmoaren inguruko informazioa biltzen du.




Webgunea berritu arren, Enpresarean proiektuak helburu bera izaten jarraitzen du: arlo bereko edo beste arlo batzuetako enpresen eta profesionalen artean elkarlana sustatzea, esperientziak zein jakintza partekatzea eta hornitzaile berriak aurkitzen laguntzea. Hori guztia, baina, euskara elementu komuntzat duten enpresa, elkarte eta entitateen artean.

Era berean, Enpresareanen bitartez, enpresei negozio aukerak handitu nahi zaizkie eta produktu/ zerbitzu berriak sortu nahi dira, euskaratik eta euskaraz. Horrez gain, euskaraz lan egin nahi duten edo-eta zerbitzua euskaraz eskaini nahi duten organizazioei eta profesionalak erraztasunak eman nahi zaizkie eta salmentarako gune bat eskaini.

Alex Gibelalde (Boostit)

“Euskara Interneten ere sustatzen jarraitu behar dugu”



Alex Gibelalde, Google eta Twitterren aritu da lanean, zuzendaritza postuetan. Sortu berri duen Boostit enpresa berriaz eta sare sozialetan enpresek eduki beharko luketen estrategiaz aritu gara berarekin. Urtarrilaren 19an Zamudion egingo dugun Enpresarean Foroan parte hartuko du Gibelalde.

Boostit enpresa sortu berri duzu, transformazio edo eraldaketa digitala proposatzen duzu bezeroentzat. Zein metodologia proposatzen duzu eraldaketa digitalerako?

Boostit urrian jaiotako proiektu pertsonal bat da (*boost it*, ingelesez “bultzatu”). Azken hamar urteotan guztiz digitalak diren enpresetan ibili naiz, eta azken aldian hemengo enpresa zein instituzio askok transformazio digitala egitea nahitaezko arloa dela

“Enpresaren helburua bezeroekin komunikatzea da. Horretarako, hauek hitz egiten duten hizkuntza mintzatu behar dugu”

ikustean, nire ezagutza lagungarria izan daitekeela konturatu naiz.

Enpresa bat benetan digitalizatzeko hiru arlotan lan egin behar da, eta horretarako metodologia espezifiko bat sortu dut. Alde batetik gure bezero digitalaren esperientzia sakontzen lan egin behar dugu (bertako arlo garrantzitsu bat marketin digitala izango litzateke); bestetik, negozio eredu berriak garatu edo arlo digitalean egin dezakegun negozioa aztertu; eta azkenik, enpresaren barneko lan egiteko moduak digitalizatu.

Marketin digitala entzuna dugu eta dagoeneko enpresa asko ari dira horretan, baina beste bi arlo biltzen ditu zure metodologiak. Zein dira bakoitzaren ezaugarriak?

Alde batetik, negozio eredu digitala:

Enpresa guztiek ezin dute salmenta zuzen bat garatu, baina zertan lagundu dezake teknologia digitalak? Agian bezero berriak gerturatu ditzakegu, negozio modelo berriak garatu edo kompetentziari aurre egin hausnarketa sakon bat eginda. Adibidez, taxilariak hasi ziren mugitzen Uber eta antzerakoak merkatuan zeudenean; eta mugimendu hori aurreikusi izan balute? Hausnarketa sakon bat egitea nahitaezkoa da etorkizuna bermatzeko.

Beste aldetik, Enpresa Digitala deritzoguna barnetik eraikitzea nahitaezkoa da. Benetan transformatu nahi badugu, erakunde hierarkikoak alde batera utzi eta benetan digitala den enpresa horizontal baterantz jo behar dugu. Enpresa digitaletan malgutasuna eta konfiantza sustatzen da, kolaborazioa, langileen ongizatea, pro-



“Sare sozial bat inongo helbururik gabe irekitzeak ez du zentzurik, eta enpresa gehienek hori egin dute”

duktibitatea eta motibazioa garatuz. Horretarako, teknologia digitalak oso lagungarriak dira.

Sareko marketina enpresa guztiek egin beharrekoa da? Profil jakin bat behar da?

Sare sozialak masiboki erabiltzen dituzte milioika pertsonak. Horren bestez, gure bezeroak bertan badaude, guk ere sareetan egon beharko genuke. Garrantzitsuena da lehenik gure helburuak ezarri eta gero estrategia bat finkatzea eta jarraitzea. Sare sozial bat inongo helbururik gabe irekitzeak ez du zentzurik, eta enpresa gehienek hori egin dute.

Marketin digitalean hasterakoan lehenengo mugikorretara egokitu-tako webgunea izan behar dugula diozu. Zergatik?

Gaur egun, estatuan % 81ek *smartphone* bat darama sakelari eta, gehienek mugikorra erabiltzen dute mezuak bidali edo Interneten sartzeko. Gure webgunea bertara egokitua ez badugu, zertarako sareetan egon? Erabiltzaileari esperientzia txar bat es-

kainiko genioke horrela jokatz gero.

Interneti esker (edo Interneten eruz) marketina ere globalizatu da. Badirudi Interneten ingelesez ez bazaude ez zarela ondo ari. Zein garrantzia dute hizkuntzek (eta bereziki euskarak) sareko marketinean?

Enpresaren helburua bezeroekin komunikatzea da. Horretarako, hauek hitz egiten duten hizkuntza mintzatu behar dugu. Euskal Herrian torlojuak saltzen dituen enpresa batek zertarako aritu behar du ingelesez?

Bestalde, Internetek ere mundura irekitzea erraztu du eta hizkuntza global bezala ingeleza erabiltzen denez, eduki asko hizkuntza horretan argitaratzen dira.

Euskarak, besteak beste, bereizteko balio du, komunitatea sortzeko, baina badirudi enpresa askok ez dutela Interneterako hizkuntza bezala ikusten. Baduzu ematerik arrakasta kasurik euskara sareko marketinean darabilen enpresaren batena?

Nire esperientzia pertsonaletik, Interneteko euskal komunitatea gutxies-ten dugula iruditzen zait. Bai *Googlen* edo *Twitterren* egon naizen urteetan, euskal komunitateak indarra duela ikusi dut. Horregatik, itzulpen plan gehienetan, euskarak bere lekua dauka eta plataforma gehienek euskarazko bertsioak argitaratu dituzte.

Euskal enpresa askok ere, beren bezero euskaldunekin komunikatzeko sareak eta webguneak dauzkate. Adibidez, PuntuEus-ek izan duen harrera oso indartsua izan da. Euskara Interneten ere normalizatzen jarraitu behar dugu, baina hainbat arrakasta kasu badaude bai zerbitzu edo enpresa industrialetan.

“Gure webgunea bertara egokitua ez badugu, zertarako sareetan egon? Erabiltzaileari esperientzia txar bat eskainiko genioke”



#BaiPraktikaEgokia
baieuskarari.eus



#BaiPraktikaEgokia
baieuskarari.eus



#BaiPraktikaEgokia
baieuskarari.eus



#BaiPraktikaEgokia
baieuskarari.eus



20 jarraibide enpresetan euskaraz jarduteko

Enpresak euskaraz aritzeko hainbat jardunbide ari da proposatzen Bai Euskarari, Ziurtagiria eskuratzeko dauden irizpideei jarraiki. Jardunbide horiek *baieuskarari.eus* webgunean kontsulta daitezke euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.





Zein da jardunbide egokia eta eredugarria Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen arabera? Zer egin beharko luke egoki jardun nahi duen entitateak? Lau eremutan jaso dugu euskararen erabilerari dagokionez egoki aritu nahi duten enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek egin beharreko bidea.

Jarraibide horiek hainbat adibidez hornituta jarri ditugu *Baieuskarari.eus* webgunean, eta horien laburpen-gisa 20 jarraibiderik aipagarrienak nabarmendu ditugu, euskarazko zerbitzua eskaini eta euskaraz lan egiteko bidea samurtzeko enpresei.

Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragitea da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen helburua eta euskaraz aritu nahi duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei erreferentzia bat eskaini nahi diegu jarraibide hauekin.

QR kodea eskaneatuta kontsultatu ahal izango dituzu jarraibide guztiak. ●



KULTURA
EUSKARA
SUSTATZEN

elkar



www.elkar.eus

ALGORTA · ARRASATE · BAIONA · BASAURI · BERGARA · BILBO · DONOSTIA · GASTEIZ · HERNANI · IRUN · IRUÑA · TOLOSA



#GasteizenBaiEuskarari aldarrikatu zuten euskaraz hitz eginez eta txioka



Abenduaren 2an egin genuen Mintzo-Txiodromoa Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean. 300 lagun inguru izan ziren parte hartzen, gehienak ikasleak. Hezkuntza, lan mundua, euskara, aisialdia eta kirola izan zituzten mintzagai, besteak beste. Ahoz ez ezik, esandakoak txiokatzeko aukera ere izan zuten #GasteizenBaiEuskarari traola erabilita.

Hezkuntza zentro ezberdinetako ikasleak izan ziren bertan: Egibide, Karmeldarrak, Mendebalde Institutua, Ostalaritza eskola, San Viator eta Presentación de María.

QR kodea eskaneatuta ikus ditzakezue Mintzo-Txiodromoko laburpen-bideoa, txioak eta argazkiak. ●

LANsarean
bilalan

www.lansarean.eus



Enpresa eta profesional euskaldunak
harremanetan jartzeko **webgunea**

- Lan bila zabilta?
- Lana eskaintzen duzu?



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz



Araban Bai Euskarari

Araban gero eta gehiago dira euskaraz bizi nahi dutenak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartean lanean ari gara horrela izan dadin. Lan hori indartzeko Alaveseko jokalarri batzuen kolaborazioarekin egin dugu honako bideoa. Alavesaren eta Baskoniaren partiduetan ikusi ahal izango da, besteak beste.





2016an ere

#LanEtaBiziEuskaraz egin nahi dugulako, #BaiEuskarari

bai
euskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

baieuskarari.eus



/baieuskarariziurtagiria



@baieuskarari

Lan eta bizi euskaraz



enpresarean.eus



/enpresarean



@enpresarean

LANsarean
bilalan

lansarean.eus



/lansarean



@lansarean